




...ETA ARGIA EGIN ZEN

Aspalditik generabilen Aurrekomendi alde horretan argia egiteko dagoen zentral hidraulikoa ezagutzeko asmoa. Uda-berriko lehenengo eguraldi onarekin hara abiatu gara hango bitxi hura bertatik bertara ikusi eta aztertze. Guztiok ere gure herria hobeki ezagutzeko balioko duelakoan egin dugu lantxo hau.



Barkatu, baina gu euskaraz ikasten ari gara. Mesedez, poliki...bla, bla, bla.

Ordubetean ondo egiten da Oñatitik Antzuolas-Beitirako bidea. Bertara joateko bi dira bide nagusiak: Errekaldetik, errekarri jarraituz, edota Larraingaindik gora doan pistatik.

Guk azken hau hartu dugu. Hasiera gogor samarra da, bero handia dago eta gure gorputzak bigunak daude oraindik. Atsedena hartu beharko dugu, baina goraxeago, Azkarateko bide gurutzean. Iturritik ura edan, aurpegia busti eta askoz hobeto gaude.

Antzuolas-Beitira joateko ezkerretara eta aurrera hartu behar dugu; eskumatarra eta gorantz egiten duen bideak, Azalgarate, Jentile-

txe eta abarretara eramango gaitu.

Giro aparta egiten du eta zuhaitz eta lekuen izenak ikasten ari gara.

Ixo! Kuku, kuku, kuku... Kukuak ongi etorria ematen digu. Elkarri begiratu diogu eta gure eskuak poltsikoetara eraman ditugu. Alferrik izan da. Denok barrez hasi gara. Ezta xemeikorik ere.

Konturatu ere egin barik Antzuolas-Beitin gara eta han ikusten ditugu Esteban


eta Santi Guridi gure zain dena erakutsi eta azaltzeko prest.

Lehenengo beheko erreka zokora joango gara, han baitago txabolatxo batean baserri hauei joandaneke hirurogei urtetan argia egin dien _alemana".

Era xume eta egokian egindako lan artesauak ditugu gure aurrean: Zubi zaharra, urari pasoa ematen dion tramankulu artetsua, deztera....

Gogait eragiten ari gara geure erakusleei gure galde-
ra zaparradarekin. Eurek tinko. Gure irakasleek baino

1934ko negua berezia izan zen Aurrekomendiko neskatala-mutikotentzat: argia zeukaten gauean irakurtzeko.

FAGOR  **GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREKIN ZERBITZUAN**

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

ADI

- Fotokopiak
- Kolorezko kopiak
- Enkuadernazioak
- Fax publikoa

Foruen Enparantza OÑATI
Tel: 78 24 89 Fax: 78 24 89

Mende honen hasieran aguro hedatu zen hiri eta herrietan argindarraren erabilera; auzo eta baserrietan beranduago iritsi zitzairen.

pazientzia haundiagoa daukate!

“Urik ezean ‘emen jai dago”, diote gure erakusleek. Beraz, gora igo beharra dago ura non eta nola hartzen den ikusteko. Gu pozik. Ez gara bazterrak miatzen inoiz aspertzen eta.

Amaitu dira ikustekoak; orain meriendatu egin behar digu. Gure solasak luze jo digu. Isildu da kukua. Etxera itzultzeko ordua da.

ZENTRALA

Arranoaitz errekatik hartutako ura, ubide batez 60.000 litroko urtegi batera biltzen da.

Bi dira urtegiaren helburuak:




Batetik, agorraldiatarako ura pilatzea, eta bestetik, 200 metro beherago dagoen turbinara ur-jauzia sortzea.

Urari, Antzuolas-Beitik ematen zaio, baserrietik turbinara dagoen hari baten bidez. Urari eman ahala turbinan lanean hasten da eta Antzuolas-Beiti, Antzuolas-Etxeberi, Eltzinkorta, Koroso eta Sarramendira bidaltzen da elektrindarra.

Funtzionamenduari dagokionez, urak turbinari eragiten dio honek energia mekanikoa sortuz, ondoren dinamoak energia mekanikoa hori argindar bihurtzen du.

Euskaltegiko Miatzaileak


Alemanian egin, ferian erosi eta Aurrekomendira astoan hartuta; gero, gauza jakina: Auzolana.



**KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAINKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis.
Tfnoa: 77 09 92
ARRASATE
San Lorenzo, 39
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI

HARITZA



- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotoa
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 96 OÑATI